


Euskadiko emakumezko 1000 nerabetik 9,3 haurdun geratu ziren 2013an
2013an Euskadiko 155 nerabek haurdunaldia borondatez eten zuten


Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzuaren arabera, Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko 155 nerabek haurdunaldia eten zuten 2013an. Beste alde batetik, INEren Jaiotza Erregistroaren arabera, 2013an, 15 eta 17 urte bitarteko 80 nerabek haurra izan zuten EAEn.

Bilakaerari erreparatuta, HBEen kopuruak behera egin du 2012 eta 2013 bitartean eta jaiotza-kopurua egonkor dabil.



Datu hauek erabiliz nerabeen haurdunaldien tasa osatu du [Gazteen Euskal Behatokia](#)k. Tasa horrek oso informazio sintetiko eta baliagarria ematen du, hainbat erakundek sexu-osasunari buruz gazteei zuzenduta garatzen dituzten esku-hartzeen eraginaren jarraipena egiteko.

Nerabeen haurdunaldien tasa kalkulatzeko, 15 eta 17 urte bitarteko neskek urte jakin batean izandako haurdunaldien borondatezko etenduren kopurua eta izandako erditzeena gehitzen dira eta emaitza adin horietako gazteen kopuruarekin erlazionatzen da. Tasa 9,3koa da 2013an EAEko 15 eta 17 urte bitarteko 1000 emakume gazteko. Tasa hori handitu zen 2003tik 2007ra; baina 2007tik aurrera egonkortu egin da eta 9 puntu inguruan geratu da, adin-talde horretako 1000 emakumeko.



Azterketa honetan eskainitako datuak Gazteen Euskal Behatokiaren estatistiketan kontsulta daitezke, [Adierazleen Sistema](#)ren **Osasuna** izeneko atalean.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

